

MERKATARITZA-EREMU IREKIAK BIZIBERRITZEKO PROGRAMA: MERKATARITZAKO EKINTZAILITZA SUSTATZEKO ETA HUTSIK DAUDEN MERKATARITZA-LOKALAK OKUPATZEKO EKINDENDAK PROIEKTUA.

• ATARIKOA

AURREKARIAK

Donostiako Udaleko garapen ekonomikoko Donostia Sustapena elkarteak, besteak beste, hiriaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko helburua du, batez ere kohesio- eta jasangarritasun-irizpideen arabera, hiriko eragileekin eta haien artean hitzartuta eta lankidetzan jardunez, eta proiektu berritzaileen garapenaren alde eginez, hirirako eredu eraldatzaile gisa.

Hiriko ehuna osatzen duten sektore ekonomiko guztien artean, merkataritza ez da tradizio handiko sektorea bakarrik, garrantzi ekonomiko handia du gainera. Donostiak 2.483 txikizkako saltoki ditu 2022an, probintzia osoko merkataritzaren % 30. Establezimendu horiek 8.573 enplegu sortzen dituzte, hau da, hiriko enpleguaren % 8,9.

Donostiako Sustapenak, sektore tradizionalagoetan, hala nola merkataritzan, ekintzailitza sustatzearen esparruan, funtsezko rola bete du, proiektu eta negozio-eredu berritzaile berrien ekintzailitzarako ekosistemaren eragile dinamizatzaile eta bultzatzaile gisa. **Ekintzailitza** babestearen aldeko apustuan, 2022ko sustapen-planean 234.000 euro bideratu zituen enpresa berriak zuzenean sortzeko laguntzetara, eta eragin zuzena izan zuen 169 enpresa-proiektu berri sortzean, horietatik % 15 **tokiko saltokiak** izanik.

Merkataritza-enpresen eta -negozioen digitalizazioak, iraunkortasunak eta berrikuntzak markatutako testuinguru sozioekonomiko horretan, Donostiako Sustapenak hiriko merkataritza-establezimenduei lagundu nahi die sorkuntza- eta hazkunde-faseetan, beren merkataritza-ideiak eta -proposamenak aztertu eta balidatu ahal izan ditzaten. Horretarako, **EkinDendak programa** jarri du abian, helburu hauekin:

- ✓ Hazteko ahalmena duten merkataritza-proiektu ekintzaileak identifikatzea eta laguntzea.
- ✓ Merkataritza-proiektuen testak eta ezarpena sustatzea, aldi baterako txandakako egoitzen bidez.
- ✓ Hutsik dauden lokalak okupatzen laguntzea, ekintzailitza-ekimenei aholkularitza eta laguntza emanez.

PROGRAMA

Negozio-idea komertzialak bultzatzeko eta hiriko merkataritza-lokal hutsetan ezar daitezen laguntzeko programa da. EkinDendak bi etapatan egituratuta dago:

- a) Negozio komertzialei buruzko prestakuntza eta aholkularitza espezializatua.
- b) Sinergia komertzialak sortzen dituzten ardatz komertzial aktibo eta erakargarrietan kokatutako lokal komertzial batean negozio-idea bat testean eta esperimentatzea. Donostia

Sustapenak identifikatuko ditu ardatz horiek, eta segimendua egingo du, esleitutako lokala okupatuta dagoen bitartean.

Prestakuntza eta aholkularitza espezializatuko programaren bidez, bertako proiektu ekintzaile komertzial berezi eta berritzaileak identifikatu nahi dira, eta proiektu horiek martxan jartzen lagundu nahi da, ondoren, Donostia Sustapenak EkinDendak programaren barruan identifikatuko dituen lokaletan instalatzeko eta, modu horretan, negozio-idea horiek aurrera eraman eta haien bideragarritasuna esperimendu ahal izateko. Horretarako, programa amaitzean, Donostia Sustapenak merkataritzako ekintzailetza-proiektuen poltsa bat sortuko du, programan parte hartu dutenetatik abiatuta eta programan lortutako lorpenetan eta emaitzetan oinarrituta.

Donostia Sustapenak jarduera ekonomiko bat aurrera eramateko egokiak diren lokal komertzial hutsak identifikatuko ditu, eta lokal horiek lagako dizkie proiektuak aurreratuta dituzten, bideragarritasuna egiaztatua duten eta prestakuntza amaitzean puntuazio altuena lortu duten –eta, beraz, horretarako sortutako poltsan lehenengo lekuetan geratu diren– parte-hartzaileei.

Lokal komertzial horietan egingo diren egonaldiek baldintza espezifiko batzuk izango dituzte, eta poltsan dauden eta testeatze eta esperimenduzio fasera pasatu diren proiektuei bakarrik aplikatuko zaizkie.

PROGRAMAREN BALDINTZAK

1.- XEDEA

Merkataritza arloan ekintzailetza-proiektuak identifikatzea, martxan jar daitezten laguntzea eta lokal komertzial batean negozio-eredu baten bideragarritasuna fisikoki testean eta esperimendatzeko egokiak direnak identifikatzea da programa honen xedea.

Programaren bidez, pertsona ekintzaileek hiriguneetako lokal komertzial hutsak erabili ahal izan ditzaten sustatu nahi da, bi helbururekin:

- a) Bertako ekintzailetza sustatzea eta banaketa komertzialaren merkatuan sartzeko erraztasunak ematea.
- b) Tokiko merkataritza sustatzea, lokal komertzialak egungo eskaintza komertziala osatuko duten negozio berriekin betez, eta, hala, sinergia komertzialak eragingo dituzten ardatz komertzial funtzionalak sortzea.

Lehenengo fasean, EkinDendak prestakuntzara bideratutako programa bat izango da. Formatu praktikoa nahiz teorikoa izango du, eta ingurune kolaboratibo batean garatuko da, ekintzaileen proiektuak sustatzeko helburuarekin. Hala, ikasketa prozesu horretan, azalpen teorikoak emango dira, eta horrekin batera, taldeko nahiz banakako lanak egingo dira, parte-hartzaile bakoitzaren proiektua bideratzen laguntzeko. Prestakuntza-prozesu horretan, tutoretzapeko lana nahiz lan autogestionatua egin ahal izango da. Bi jarduera horiek taldekoak nahiz banakakoak izango dira.

Bigarren fasea, berriz, esperimentaziorako fasea izango da. Hala, Donostia Sustapenak identifikatutako lokal komertzialetan martxan jarri ahal izango dira negozioak. Lehenengo faseko ebaluazioan puntuazio altuena lortu duten proiektuek bakarrik izango dute aukera hori.

2.- PROGRAMAREN IRAUPENA.

Programa osoak 10 hilabeteko iraupena izango du, eta bi fasetan egituratuta egongo da:

- Prestakuntza, tutoretza eta aholkularitza faseak 16 asteko (4 hilabete) iraupena izango du, eta landutako proiektuak hiriko lokal komertzialetan kokatzeko lan-poltsa osatzean amaituko da.
- Testeatze, esperimentazio eta salmenta faseak 6 hilabeteko iraupena izango du (fase hori beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da, baldin eta Donostia Sustapenak egoki ikusten badu).

3.-PROGRAMAREN EDUKIA:

Programa bi etapatan egituratuta dago, eta hurrengo edukia izango du:

- ❖ **Lehenengo etapa:** Negozio komertzialei buruzko prestakuntza espezializatua PRESTAKUNTZA ETA TUTORETZA

Lehenengo astean, parte-hartzaileak eta haien proiektuak aurkeztuko dira, eta azken astean, programaren lehenengo fasearen ondoren lortutako emaitzen aurkezpena egingo da.

Programak iraungo duen gainerako asteetan, bloke hauen arabera egituratuko dira prestakuntzara bideratutako edukiak:

- **Taldeko saioa, zeharkako prestakuntzarekin** (arloan pertsonala, estrategikoa, marketina, ekonomia eta finantza arloko prestakuntza eta prestakuntza administratiboa), parte-hartzaileei enpresa bat kudeatzeko oinarrizko kontzeptuen berri emateko. Saio bakoitzean erronka bat ezarriko da, parte-hartzaileek hurrengo saiorako landu dezaten, haien proiektu pertsonalera aplikatuz.
- **“Galde-erantzunak” taldeko saioa.** Saioak egin aurretik, tokiko merkataritzarekin eta enpresa-kudeaketa arloko zeharkako prestakuntzarekin lotura duten hiru podcast emango zaizkie parte-hartzaileei, entzuteko, eta sortzen zaizkien galderak aztertzeko. Tokiko merkataritzaren eguneraketan eta hirietako merkataritza-eremuen biziberritze ekonomikoan espezializatutako aholkulari batek dinamizatuko ditu Q&A saioak. Kasuaren metodologia erabiliz, aholkulariak modu praktikokoan aztertuko ditu sortzen diren gaiak, eta sortutako galderei erantzungo die.
- **Banakako tutoretza.** Aste bakoitzean, parte-hartzaile bakoitzak segimendurako tutoretza bat izango du, bere proiektu pertsonala aurrera eramateko laguntza jasotzeko.
- **Banakako lana:** astero, parte-hartzaile bakoitzak lan hau egin beharko du, gutxienez: taldeko saioan ezarritako erronkari erantzun, bere proiektura aplikatuz, eta “Galde-erantzunak” taldeko saioaren aurretik esandako podcastak entzun.

1. fasea amaitzean, ebaluazio bat egingo da parte hartzen duten proiektuen artean, ordura arte lortutako emaitzetan eta proiektuaren heldutasun-mailan oinarrituta. Gutxieneko puntuazioa lortzen duten proiektuak proiektu-poltsa batean sartuko dira. Poltsa horretako proiektuak testeatze- eta

esperimentatze-fasera pasako dira, eta Donostia Sustapenak adierazitako lokal komertzialean eramango da aurrera fase hori, 6 hilabetez. Lokal horietan, parte-hartzaileek zuzenean saldu ahal izango dizkiete eskainitako produktuak eta zerbitzuak kontsumitzaileei/bezeroei.

❖ **Bigarren fasea: SEGIMENDUA, TESTATZEA ETA ESPERIMENTAZIOA: Erakusketa eta salmenta lokal komertzialean**

Bigarren fasera pasatzen diren proiektuetako parte-hartzaileek beren produktuak esperimentatu eta merkaturatu ahal izango dituzte 6 hilabetez, probako epe horren ondoren, haien konturako lokal komertzial batera jauzia eman ahal izateko.

Bigarren fasea bi bloketan egituratuta dago:

- **Testeatzea eta esperimentatzea.** 6 hilabetez egingo da, eta enpresaren proba edo entsegu pilotua egiteko balioko du. Lokal hori co-shopping erregimenean eskainiko da (espazio partekatua).
- **Jarraipena eta laguntza teknikoa.** Lokal komertzialeko egonaldi fisikoak iraun bitartean, laguntza eta aholkularitza indibidualizatua eskainiko da, negozioa testetzen laguntzeko, kudeaketan lanak eta lan komertzialak zuzentzen joateko....

4.-PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Programako lehenengo fasean parte hartzeko, ezinbestekoa da Donostiako lokal komertzial batean kokatuko litzatekeen merkataritza edo zerbitzu arloko negozio-ideia bat izatea.

Parte-hartzaileak negozioa Donostian kokatu asmo duten edo kokatua duten pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke (negozioa martxan jartzekotan direnak edo negozioa martxan jarria dutenak).

Proposamenak banaka eta modu pertsonalean aurkeztu behar dira, eta pertsona edo saltoki bakoitzak bi proposamen aurkeztu ahal izango ditu, gehienez.

Bigarren fasean parte hartzeko, aukeratutako proiektuek jarduera ekonomiko bat martxan jartzeko beharrezkoak diren baldintza administratibo guztiak bete beharko dituzte:

- Ekonomia-jardueren gaineko zergan eta Langile Autonomoen Araubide Berezian altan egotea.
- Indarrean dagoen erantzukizun zibileko seguru bat izatea.
- Jarduera ekonomiko bat aurrera eramateko administrazio eta lege arloko betebeharrak guztiak betetzea, Ticket Bai fakturazioari dagozkionak barne.
- 150€-ko fidantza ordaintzea. EkinDendak programako lokalean egonaldia amaitzean itzuliko da fidantza hori. Kalteak izanez gero, horiek konpentsatzeko erabiliko da fidantza.

Bigarren fasearen hasieran altan ez dauden eta aukeratutako proiektuak egin dituzten ekintzaileek 15 eguneko epea izango dute haien egoera Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurrean erregularizatzeko. Epe hori 1 hilabetekoa izango da, forma juridikoa zehazteko izapide gehiago egin behar direnean. Kasu horietan, **ezingo da salmenta-jarduerarik egin, izapide guztiak amaitu eta**

gainerako baldintza guztiak bete arte. Egin beharreko izapideak egiteko beharrezkoa den aholkularitza eskainiko du Donostia Sustapenak.

Bigarren fasea hasi aurretik, Donostia Sustapenak dokumentazioa eskatuko du, adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

5.-HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

Eskaerak norgehiagoka bidez ebaluatu eta ebatziko dira. Aurkeztutako proiektuak ebaluatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Proiektuarekin lotutako irizpideak. (50 puntu)

Negozio-eredua, berrikuntza, digitalizazioa eta jasangarritasuna

- Ideiaren deskribapena eta jatorria eta beteko duen beharra. 10 puntu
Ideia deskribatzeko argitasuna eta zehaztapen-maila baloratuko da, bai eta negozio-idea justifikatzeko identifikatutako beharraren deskribapena ere.
- Negozio-eredu aurretiaz testatzea. Negozioaren garapen-maila. 10 puntu.
Bezerekin eta merkatuarekin egindako egiaztapenak, prototipoak egotea, beta produktuak, salmenta-esperientzia eta aurretiazko fakturazioa baloratuko dira.
- Berrikuntza maila. 10 puntu
Produktu-zerbitzuetan, ekoizpen-prozesuetan, marketinean... ezaugarri bereizgarriak edo berritzaileak eskaintzen dituzten proiektuak baloratuko dira.
- Tresna teknologikoen eta digitalizazio-mailaren garapena eta erabilera. 10 puntu.
- Proiektuaren jasangarritasuna (ekonomikoa eta ingurumen arlokoa). 10 puntu.
Proiektuen jasangarritasun-maila baloratuko da (hazkunde ekonomikoaren, ingurumena babestearen eta gizarte-ongizatearen arteko oreka). Memorian, proiektuaren bidez sustatu nahi diren Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH 2030) ere adierazi beharko dira.

Proiektuak aurkezteko epea amaitu ondoren, Donostiako Sustapeneko talde teknikoak eskaera guztiak ebaluatuko ditu, eta 30 puntu gainditzen dituzten proiektuak elkarrizketa pertsonal batera deituak izango dira. Elkarrizketa horretan, taldearekin lotutako irizpideak baloratuko dira (50 puntu):

Taldearekin lotutako irizpideak. (50 puntu)

Profil pertsonala, konpromisoa eta prestasuna

- Programan parte hartzeko motibazioa. 10 puntu
- Prestakuntza, ezagutza eta esperientzia maila proiektuaren arloan. 10 puntu.
- Taldearen koherentzia maila lanen planteamenduan eta banaketan. 10 puntu.
- Programan parte hartzeko eta proiektua aurrera eramateko prestasuna epe ertain eta luzean. 10 puntu.

- Harreman-kapitala edo harreman-sarea produktuaren edo zerbitzuaren balio-katean. 10 puntu.

“Taldearen” puntuazio hori “proiektuaren” puntuazioari gehituko zaio, eta puntuazio handiena lortu duten proiektuak aukeratuko dira.

6.-ESKAERAK, EPEAK ETA DOKUMENTAZIOA

Eskaerak modu telematikoan aurkeztu ahal izango dira, oinarriak Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus) argitaratu eta hurrengo egunetik, eta azaroaren 30 arte.

Bitarteko horiek erabiltzea ezinezkoa izanez gero, parte hartzaileek Donostia Sustapenarekin jarri beharko dute harremanetan, eta hark esango die zer beste modutara egin ditzaketen izapideak.

Eranskin guztiak bete beharko dira, eta orrialde guztiek behar bezala sinatuta egon beharko dute. Dagokion eskaera-inprimakiaz gain, oinarri hauetan eskatutako dokumentazio administratibo guztia erantsiko da.

Edozein informazio eskatu edo zalantzak argitzeko, Donostia Sustapenaren 943482800 telefonora deitu ahal izango da –astelehenetik ostegunera 09:00etik 17:00era eta ostiraletan eta jaiegun-bezperetan 09:00etik 14:00era– edo mezu elektronikoko bat bidali fomentoss@donostia.eus helbidera, “gaia” atalean “EkinDendak 2023” jarritz.

Programan parte hartzeko interesa duten enpresa edo erakundeek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. faseko dokumentazioa:

- 1) Eskaeraren eranskina
- 2) Eskatzailearen NAN
- 3) Pertsona juridikoen kasuan, eskatzailearen IFK
- 4) Proiektuaren memoria (pertsona edo talde sustatzaileari eta proiektuari buruzko informazioa, proiektuak ebaluatzeko orduan aplikatuko diren eta parte hartzeko oinarri hauetan adierazten diren irizpideen arabera).

Lokal komertzialak okupatu aurretik, lehenengo fasea gainditzen duten eta bigarren fasera pasatzen diren proiektuek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

2. faseko dokumentazioa:

- 1) Ekonomia-jardueren gaineko zergan izandako alta eta baje ziurtagiri historikoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak egina (EJZ historikoa)
- 2) Ekintzailearen lan-bizitza.
- 3) Erantzukizun zibileko aseguruia ordaindu izanaren kopia.
- 4) Donostia Sustapenari 150 €-ko fidantza ordaindu izanaren kopia.

7.-ESKAERETAKO AKATSAK KONPONTZEA

Eskaerak aurkezteko baldintza guztiak betetzen ez badira, pertsona edo erakunde interesatuari eskatuko zaio, jakinarazpenetik 10 egun balioduneko epean, hutsunea konpondu edo aurkeztu beharreko dokumentuak aurkez ditzan, eta gogoraziko zaio, hala egiten ez badu, atzera botako dela eskaera, eta, beraz, bertan behera geratuko dela.

8.-LEHENENGO FASEKO EBAZPENA ETA BIGARREN FASERAKO PROIEKTUEN HAUTAKETA

Programan parte hartzeko eskaerak oinarri hauetan adierazitako parametroen arabera ebatziko dira. Edonola ere, Donostia Sustapenaren berariazko ebazpen bidez egingo da onarpena edo ukapena, eta posta elektronikoko bidez jakinaraziko da.

1. fasea amaitzean, ebaluazio bat egingo da parte hartzen duten proiektuen artean, ordura arte lortutako emaitzetan eta proiektuaren heldutasun-mailan oinarrituta. Gutxieneko puntuazioa lortzen duten proiektuak proiektu-poltsa batean sartuko dira. Poltsa horretako proiektuak testeatze- eta esperimintatze-fasera pasako dira, eta Donostia Sustapenak adierazitako lokal komertzialean eramango da aurrera fase hori, 6 hilabetez. Lokal horietan, parte-hartzaileek zuzenean saldu ahal izango dizkiete eskainitako produktuak eta zerbitzuak kontsumitzaileei/bezeroei. Lehenengo fasean, fase hori amaitu aurretik, Donostia Sustapenak ondorioztatuko balu proiektu batek ezarritako helburu guztiak betetzen dituela eta bigarren faserako garapen-maila nahikoa duela, proiektu horretako ekintzaileak programaren bigarren fasera pasatu ahal izango dira.

Proiektuak hautatzearen **emaitza abenduan jakinaraziko da**, eta programaren lehen faseko prestakuntza hasiko da.

Bigarren faseak 6 hilabeteko iraupena izango du, eta beste 3 hilabetez luzatu ahal izango da, baldin eta Donostia Sustapena hala adierazten badu, merkatu-irizpideen arabera edo une horretan lokaletan martxan dauden proiektuen arabera.

Ebaluazio-irizpide hauek aplikatuko dira:

- Marketin-plan bat izatea (xede-taldea, "branding"-a, komunikazio- eta sustapen-estrategia, prezio-politika, etab.). (25 puntu. Beharrezkoa da 20 puntura iristea)
- II. fasean presentzialki egoteko prestutasun maila (25 puntu. Beharrezkoa da 20 puntura iristea).
- Lehenengo fasean lortutako aprobetxamendu eta garapen maila (25 puntu).
- Hiriko beste sektore estrategiko batzuekin lerrotatuta egotea, negozioaren berrikuntza-maila, negozio-aukeraren potentziala, etab. (25 puntu)

Gutxieneko puntuazioa (75 puntu) lortzen duten proiektuak proiektu-poltsa batean sartuko dira. Poltsa horretako proiektuak testeatze- eta esperimintatze-fasera pasako dira, eta Donostia Sustapenak adierazitako lokal komertzialean eramango da aurrera fase hori, 6 hilabetez. Lokal horietan, parte-hartzaileek zuzenean saldu ahal izango dizkiete eskainitako produktuak eta zerbitzuak kontsumitzaileei/bezeroei.

Proiektuak Donostia Sustapenak identifikatu dituen lokaletan instalatuko dira, proiektuen poltsaren ordenari jarraituz eta lokal horietan dagoen lekuaren arabera. Enpresa batek bere egonaldia amaitu eta lekua uzten duenean, poltsaren hurrengo proiektuak hartu ahal izango du.

Programaren bigarren fasera iristen diren parte-hartzaileek oinarri hauen 7. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute bigarren fase horretarako.

9. -PARTE-HARTZAILEEN BETEBEHARRAK.

Programan parte hartzen dutenek betebeharrak espezifikatu hauek bete beharko dituzte:

1. Programaren baldintzak betetzea, prestakuntza-saio denetara joanez eta hasieratik adierazitako lan-plana aurrera eramanez.
2. Prestakuntza-fasean % 80tik gorako parte-hartzea ezinbestekoa da lokal komertzialean esperimendu eta saltzeko proiektu gisa hautatua izateko.
3. Bigarren fasera pasatzen diren proiektuen kasuan, jarduera ekonomikoari lotutako arauak betetzea (Alta EJZn, erantzukizun zibileko aseguruak, Gizarte Segurantzak...)
4. Lokala mantentzeko baldintzak eta lokalean dauden beste ekintzaile batzuekiko bizikidetzarako arauak betetzea.
5. Programan ezarritako ordutegi komertziala betetzea.
6. Teste- eta esperimendu-fasean lokal komertzialean egonaldia egiten denean sor daitezkeen bestelako garapen- eta funtzionamendu-arauak betetzea.
7. Jarduera komertziala aurrera eramateko ezinbestekoa den beste edozein arau betetzea (produktuak eta zerbitzuak)
8. Proiektua aukeratzeko kontuan hartuko litzatekeen ustekabeko beste edozein inguruabar (objektiboa nahiz subjektiboa) Donostia Sustapenari jakinaraztea.
9. Donostia Sustapenak programa aurrera eramateko orduan bere funtzioak bete ditzan eskatutako informazio oro ematea.
10. Donostia Sustapenari laguntza ematea, hala badagokio, finantza-kontrolerako eta egiaztapenerako jarduerak aurrera eramateko, eskatutako informazio eta dokumentazio oro aurkeztuz.
11. Donostia Sustapenari baimena ematea enpresen direktorio digitaletan datu hauek argitaratzeko: harremanetarako datuak, jarduera, izen komertziala, logoa, marka eta ekintzaileak trafiko ekonomikoan erabilitako beste edozein zeinu edo bereizgarri. Horretarako, ekintzaileak elementu horien gainerako ustiapen-baimen ez-esklusibo bat emango dio Donostia Sustapenari –adierazitako helburuetara mugatua–, eta modu baketsuan erabiliko dituela bermatuko du. Beraz, berariaz baimendu beharko da baldintza hauetan ezarritakoa zorrotz betetzen ez duen beste edozein erabilera.
12. Komunikazio-euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mezu elektronikoak, megafonia, seinalea...), sustapen- eta hedapen-materialetan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan EAEko hizkuntza ofizialak erabiliko direla bermatzea (euskarari lehentasuna emanez).

Programako parte-hartzaileek Donostiako Udaleko euskara-zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango dute testuak itzultzeko eta zuzentzeko (hilabete batean gehienez 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira ([Http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es](http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es))

13. Azpiegitura, material, euskarri eta espazio guztietan Donostiako Udalaren eta Donostia Sustapenaren logoak ezartzea:



10.-PROGRAMAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA.

Programan parte hartzen duen ekintzaileak ez baditu betetzen oinarri hauetan ezarritako baldintzak, galdu egingo du programan parte hartzeko eskubidea, horrek dakartzan betebeharrak guztiekin.

11.-IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Oinarri hauen bidez arautzen den jarduera dela-eta biltzen eta sortzen diren datu pertsonalak Donostia Sustapenak kudeatuko ditu, enpresa edota autonomoen enpresa-proiektuak sustatzeko zerbitzuak eskaini ahal izateko. Eskatu eta sortzen diren datu pertsonalak beharrezkoak dira zerbitzu hau eskaini ahal izateko. Horiek gabe, ezinezkoa izango litzateke zerbitzua ematea.

Titularrak Donostia Sustapenari jakinarazi beharko dio izaera pertsonaleko datuetan izandako aldaketa oro, eta datu horien titularra izango da emandako datuen egiazkotasunaren eta zehaztasunaren gaineko erantzulea. Hirugarrenen datuak ematen diren kasuetan, eskatzaileak datu horien titularren adostasuna izan beharko du, datuok jakinarazi ahal izateko. Donostiako Udala da datu horien tratamenduaren arduraduna, eta Donostia Sustapena, zerbitzuaren kudeatzailea izanik, izango da tratamendu-eragilea.

Donostia Sustapenari datu pertsonalak tratatzeko gaitasuna ematen dion titulu juridikoa interes publikoa da, Datuen Babeserako Europako Erregelamendu Orokorraren 6. artikuluan jasotzen dena.

Datuak hirugarrenei lagako zaizkie, baldin eta beharrezkoa bada legezko obligazioak betetzeko edo kanpoko hornitzaileek zerbitzuari euskarria emateko.

Aldeen arteko kontratuaren arabera zerbitzuak irauten duen bitartean kontserbatuko dira datuak, eta ondoren, beste bost urtez, zerga-araudia betez. Datu pertsonalen tratamenduaren inguruko eskubideak erabili ahal izateko, Donostiako Udalaren Udalinfo zerbitzura jo ahal izango da (Ijentea kalea 1, 2003).

Ondorio horietarako, jakinarazten da, eskaera aurkeztean, ulertzen dela eskatzaileak jaso dituela datu pertsonalen tratamenduari buruz aurreko paragrafoetan adierazitako informazioak.

12.-AZKEN XEDAPENA.

Oinarri hauek Donostia Sustapeneko web gunean (www.fomentosansebastian.eus) argitaratuko dira, eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean. Eskaera aurkeztean, ulertzen da interesdunek osoki onartzen dituztela oinarri hauek.

Aukeratutako pertsona/enpresa izango da aurkeztutako dokumentazio guztiaren egiazkotasunaren erantzule bakarra, bai eta jarduera egitearen ondorioz –eta jardueraren aurretik eta ondoren egindakoen ondorioz– sortutako kalte pertsonal edota material guztien erantzulea ere. Donostia Sustapenak ez du izango inolako erantzukizunik kontzeptu horiengatik.

Donostia, 2023ko urriak 25